

Itziar Nazabal Regueiraren lanak domeka arte ikusgai Ziordian

"Begirada inpresionista" izena eman dio Itziar Nazabal Regueira ikasketak bukatu ondoren egin duen lehen erakusketari. Horre-tarako, 14 eta 23 urte izan dituen bitartean egindako hainbat margolan bildu ditu Ziordiko Auzo Celan. Batez ere lan inpresionistak daude ikusgai, baila hipe-rrrealistak edo abstraktuak ere. Teknika esparru gehie-nak hartu ditu gainera.

Inpresionismo garaiddetzat jo izan dute bere lana, baina oraindik ere, estilo bat bera ere ez duela oso bereganatua azaldu digu. Hainbat gauza aztertzea gogoko omen du. Ziordian jarritako erakusketarekin bere burua margolari bezala aldarrikatu nahi du Itziarrek. Bere burua ezagutarazi nahi du. Izan ere, bere ametsa, bete nahilco lukeena, margotzetik bizitzea izanen litzateke.

Orain arteko jbilbidea

Arte Ederretako ikasketak bukatu berri ditu altsasuarrak. Lehen 3 urteak Salamancan eraan zituen. Sarrerako azterketa zorrotz baten ondoren, 900 hautagaitatik 160 onenen artean aukeratu, eta hala izan zuen uni-



Itziar Nazabal, Ziordiko erakusketa prestatzerakoan.

bertsitaterako sarbidea. Salamancan, bigarren ikasturtean ohorezko matrikula ere eskuratu zuen. Euskal Herriko Unibertsitatean beste bi ikasturte eman zituen diseinu, pintura eta haurrentako pedagogian sakontzen. Eta beka bati esker Ingalaterrako Bradford hiria grabatuaren teknika ikasi zuen.

Asmoak

Itziarrek azaldu digunez, margotzea du gustukoan. Baina eskultura, bitxigintza edo artisautza ez ditu baztertzen. Esaterako, Bar-

tzelonan bere bitxiekin desfilean zuten moda pasarelaren batean. Ikasketak bukatu berri dituen honetan, asmo ugari ditu buruan. Hasteko, tailer bat zabaldu nahi du haur eta helduei plastika, marrazketa tekniko edo marrazten erakusteko. Horretaz gain, aldika gai jakinei buruzko tailerak eman asmo du.

Erakusketak

Baina Ziordikoa ez da bere lana erakusten duen lehen aldia. Herrian bertan Koldo Arnazek antolatutako bizpahiru erakus-

keta kolektibotan parte hartu du. BBKren Bilboko aretoan batean ere diseinuari buruzko erakusketa kolektibo batean parte hartu zuen. Cordobán, José Martínez margolariarekin ikastaroa egin eta gero lanak erakusteko aukera ere izan zuen Itziarrek. Ingalaterran ere hiru erakusketa egin ditu.

Begirada inpresionista erakusketa domekara arte dago Ziordiko Auzo Gela. Astez, ordu bate-tatik hirurak arte. Larunbatean eta domekan, berriz, arratsaldeko 7etatik 9ak arte.